

# BASAURIKO HAPORen 1. PLAN-BARRUKO ALDAKETA

## AI-01

## BEHIN BETIKO ONARPENA

MEMORIA ETA HIRIGINTZA-ARAUDIA

---

KOKAPENA:

BASAURI · BIZKAIA

SUSTATZAILEA:

BASAURIKO UDALA

ERREDAKTORE-TALDEA:



HIRITEK-EN ESP:

2302

DATA:

05.2025

## **INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA ..... 3**

|                                                                                         |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 0. AURKEZPENA .....                                                                     | 3  |
| 1.- Sarrera .....                                                                       | 3  |
| 2.- Aldaketa egitearen beharra .....                                                    | 3  |
| 3.- Aldaketaren edukia .....                                                            | 3  |
| 4.- Onartze-prozeduraren lege-enkoadraketa .....                                        | 4  |
| 5.- Erabilitako oinarriak .....                                                         | 8  |
| 1. HIRIGINTZA-PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA .....                                    | 9  |
| 1.- Lurralde-plangintza, plangintza sektorial eta beste afekzio batzuk .....            | 9  |
| 2.- Indarrean dagoen hirigintza-plangintza .....                                        | 10 |
| 3.- Aldaketak hartzen duen eremuaren mugaketa .....                                     | 10 |
| 4.- HAPoren gaur egungo parametroak .....                                               | 11 |
| 2. PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA .....                                  | 12 |
| 1.- Proposatutako antolaketa .....                                                      | 12 |
| 2.- Etxebizitza kopuruaren handitzearen justifikazioa .....                             | 12 |
| 3.- Zuzkidura estandarren betetzearen justifikazioa .....                               | 13 |
| 3.1.- SGEL Gune Libreen Sistema Orokorren estandarra (123/2012 D, 5.1.a art) .....      | 13 |
| 3.2.- Zuzkidurako bizilekuen estandarra (123/2012 D, 5.1.b art) .....                   | 13 |
| 3.3.- Gune libreen tokiko sistemen estandarra (123/2012 D, 6.1.a art) .....             | 13 |
| 3.4.- Ekipamenduko tokiko sistemen estandarra (123/2012 D, 6.1.b art) .....             | 14 |
| 3.5.- Aparkalekuen estandarra (123/2012 D, 6.1.c art) .....                             | 14 |
| 3.6.- Zuhaitzen estandarra (123/2012 D, 6.1.d art) .....                                | 14 |
| 3.7.- Babeseko etxebizitzaren estandarra (123/2012 D, 10. art) .....                    | 14 |
| 4.- Beste ikuspegi batzuk .....                                                         | 15 |
| 4.1.- Kalitate akustikoko irizpideen ezarketa .....                                     | 15 |
| 4.2.- Herritarren parte-hartze prozedura .....                                          | 16 |
| 4.3.- Genero ikuspegiaren ezarketa .....                                                | 16 |
| 4.4.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa (ELE) .....                                      | 16 |
| 3. EKONOMI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUN AZTERLANA ETA PLANAREN<br>PROGRAMAZIOA .....      | 17 |
| 1.- Sarrera .....                                                                       | 17 |
| 2.- Ekonomia-finantza azterlana .....                                                   | 17 |
| 2.1.- Lurzoruaren balioa .....                                                          | 18 |
| 2.2.- Jaraketaren bideragarritasuna. Lurzoruaren balioa urbanizatuta eta hasieran ..... | 18 |
| 3.- Finantza-iraunkortasuna .....                                                       | 20 |
| 3.1.- Ukitutako ogasunen identifikazioa .....                                           | 20 |
| 3.2.- Zerbitzuen azpiegitura berrien zehaztapena eta bere finantzaketa .....            | 20 |
| 3.3.- Administrazioaren diru-sarreraren aurreikuspena .....                             | 20 |
| 1.- Tokiko Administrazioaren diru-sarrerak .....                                        | 20 |
| 2.- Foru, autonomi eta estatuko administrazioen diru-sarrerak .....                     | 21 |
| 3.4.- Administrazioari dagozkion kostuen aurreikuspena .....                            | 22 |
| 1.- Tokiko administrazioak izan ditzaken kostuak .....                                  | 22 |
| 2.- Foru eta autonomi administrazioak izan ditzaken kostuak .....                       | 22 |
| 3.- Estatuko administrazioak izan ditzaken kostuak .....                                | 22 |
| 3.5.- Jaraketaren eragina .....                                                         | 22 |
| 4.- Planaren programazioa .....                                                         | 23 |

## **HAPoren IDAZKERA BERRIA AI-01ean ..... 24**

|                                          |    |
|------------------------------------------|----|
| Capítulo 2: AREETAKO ORDENANTZAK .....   | 24 |
| Sección 1: Bizitegia .....               | 24 |
| 1. Eremuari buruzko datu orokorrak ..... | 24 |
| 2. Erabilera-araubidea .....             | 24 |

|                                                |    |
|------------------------------------------------|----|
| 3. Jarduketen egikaritzea .....                | 24 |
| 4. Jarduketak garatzeko ezarritako epeak ..... | 24 |
| 5. Hirigintza-baldintzak .....                 | 25 |
| 6. Ingurumen baldintzak .....                  | 27 |

|                                                  |           |
|--------------------------------------------------|-----------|
| <b>DOKUMENTAZIO GRAFIKOAREN AURKIBIDEA .....</b> | <b>32</b> |
|--------------------------------------------------|-----------|

## INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

### 0. AURKEZPENA.

#### 1.- Sarrera.

Basauriko Udalak Basauriko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren lehenengo aldaketa egitea hastea erabaki du. Bera idaztea Hirigintza Teknikariak, SLP. – HIRITEK enpresari agindu dio.

#### 2.- Aldaketa egitearen beharra.

Aldaketaren xedea AI-01 Jarduketa Integratuaren parametroak berrikustea da, HAPO behin betiko onartzeko erabakiaren aurka jarritako 283/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 2022ko irailaren 29ko 459/2022 epaira egokitzeak. Epaiak errekurtsoaren zati bat onesten zuen, eta honako hau ebatzi zuen auziaren funtsari dagokionez:

1.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren deuseztasun partziala deklaratzeko, soil-soilik 0 bizitegi-eremuko AI-01 eremu integratuari dagozkion zehaztapenei dagokienez.

2.- Aurreko erabakia gainditzeko duten demandarekin egindako uziak ezestea.

Aldaketari ekiteko premia zehatzari dagokionez, horren funtsa seigarren zuzenbide-oinarrian laburbiltzen da, AI-01 guztia etxebizitza tasatu gisa erabiltzearen ustez zuzenbidearekin bat ez etortzeari buruzkoan. Salak horri buruzko iritzia eman du, eta honako hau adierazi du:

*“Ondorioz, Salak zati batean baietsi behar ditu demandarekin erabilitako asmoak, eta, aurreratu den bezala, baztertu egin behar du Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren erabateko deuseztasunaren asmoa, eta, subsidiarioki interesatzen zaionaren zati bat hartuta, 0 bizitegi-eremuko AI01 jarduketa integratuari buruzko zehaztapenen deuseztasuna, ezin baitira zehaztapenak zehaztu demandak subsidiarioki nahi dituen terminoetan, 0 bizitegi-eremuko AI01 area integratuak AI02 mugakidearen antzeko edo pareko lurzoruaren balioaren ondare-edukia merezi izateko eskubidea aitortzea interesatzen denean, eta, subsidiarioki, 0 bizitegi-arean sartutako gainerakoen aldean, planifikatzailearen ahalmenaren eremuan geratu behar dena, aukera desberdinak daudelako, demandan berariaz jasotzen den bezala, beste alternatiba batzuei kalterik egin gabe.”*

Beraz, Udalak aldaketa planteatu du AI-01 arauko zehaztapenak bere ingurukoekin parekatzeko agindu judiziala betetzea lurzoruaren balioari dagokionez, baina hori betetzeko moduari dagokionez, hark ere aitortzen dion diskrezio-ahalmen planifikatzailea erabiliz.

Legearen ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 103.4 artikuluan aurreikusitako ahalmenean oinarritzen da aldaketa, eta diskrezio-ahala arestian adierazitakoan oinarritzen da.

#### 3.- Aldaketaren edukia.

Dokumentu honen helburu nagusia da eremuko parametro jakin batzuk aldatzea, epaia betetzera egokitzeak.

Horretarako, etxebizitza librearen erabilera sartzea proposatzen da, aurreikusitako etxebizitza tasatuaren erabilera osatzeko eta, horrela, jarduketaren balantze ekonomikoa

hobetzeko eta baita bertan etxebizitza soziala ahalbideratzea. Horrek esan nahi du HAPON hasieran aurreikusitako egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua berriro diseinatu behar direla..

Forma aldetik, aldaketa honako dokumentu hauek osatzen dute:

A. Informazio eta justifikazio memoria.

B. Hirigintza-araudia eta eremu-fitxa.

C. Dokumentazio grafikoa: antolamendu-planoak.

Dokumentu osagarri gisa, herritarrek parte hartzeko programa bat, ingurumen-azterketa estrategiko bat, genero-eraginari buruzko txosten bat eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziorako irismen-dokumentu bat ditu.

#### 4.- Onartze-prozeduraren lege-enkoadraketa.

Aldaketak, besteak beste, egiturazko antolamendua birplanteatzea eskatzen duenez, hasieran aurreikusitako eraikigarritasunari dagokionez, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 35.1 artikuluan (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoa) eta 104. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPO onartzeko jarraitutako prozedura bera jarraitu da, Aurrerakinari dagokionez izan ezik, ez baitzen beharrezkoa (46/2020 Dekretuaren 35.2 artikulua). Aldaketa-dokumentua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluetan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetan ezarritako edukiarekin, eta testu bereko 90. eta 91. artikuluetan eta Lurraldearen Antolamendurako Planak eta Hirigintza Antolamenduko Tresnak Onartzeko Prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 36. artikuluan finkatutako izapidetzeari jarraituz, hasierako onespena eman zaio (2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkurako akordioa) eta jendaurrean jarri da (126 zk. BAO, 2024-07-01ekoa), herritarrek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten. Eremuan eskumenak eta interesak zituzten erakunde guztiek txostena egin ahal izateko ere bidali zen. Epe horretan, ondoko alegazio eta txostenak jaso ziren:

##### Alegaciones

| ERREF.                | DATA       | ZK.  | EGILEA          |
|-----------------------|------------|------|-----------------|
| 2302-AI-IP_2024008520 | 2024/09/02 | 8520 | TROCABIDE, S.L. |

##### Informes de administraciones y organismos.

| ERREF.        | DATA       | ORGANOA                                   |
|---------------|------------|-------------------------------------------|
| IAU-2024-0291 | 2024/07/16 | BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA             |
| S/R           | 2024/08/27 | ADIF                                      |
| 240903P719    | 2024/09/05 | TRENBIDE SEKTOREAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA |
| IAU-2024-0291 | 2024/10/02 | EUSKAL URAREN AGENTZIA - URA              |

Horiei erantzuteko banakako txostena egin da. Hona hemen txostenaren edukia, laburbilduta:

|                       |            |      |                 |
|-----------------------|------------|------|-----------------|
| 2302-AI-IP_2024008520 | 2024/09/02 | 8520 | TROCABIDE, S.L. |
|-----------------------|------------|------|-----------------|

## IDATZIAREN EDUKIA:

Hainbat erreferentzia egiten dizkio 2022-09-29ko 459/2022 epaiaren edukari. Epai horrek AI-01eko lurzorua hasierako balioaren (149,93 €/ m<sup>2</sup>) eta AI-02aren (871,65 €/ m<sup>2</sup>) edo jarduketa integratu guztien batez bestekoaren (462,91 €) arteko aldea adierazten zuen. HAPOn aldaketan eraikigarritasuna handitzea proposatu bada ere, perituaren arabera, alde handia dago AI-01en hasierako balioaren (487,53 €) eta aldameneko AI-02ren (871,65 €) artean. Horrek ondare-desoreka handiegia dakar, AI-01en hirigintza-karga handiak direla eta, batez ere eraitsi beharreko etxebizitzak. Era berean, zalantzan jartzen du garajeetarako azalera handitzea, merkataritza-irteera zalantzan jartzen baitu.

## ERANTZUNA:

Prozedurari dagokionez, HAPOn aldaketa puntuala da egokiena, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 102. artikuluan jasotako artean, aipatutako epaia betetzeko.

Edukari dagokionez, epai horrek ematen duen tarte diskrezionalaren barruan jokutzen da, eta epaitzan, memorian transkribatzen den bezala, honako hau dio hitzez hitz: *Horrenbestez, Salak partzialki baietsi behar ditu demandarekin egikaritutako uziak, baztertu egin behar du, aurreratu den bezala, Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenaren erabateko deuseztasun-uzia, eta partzialki onartu du subsidiarioki interesatzen zaiona, hots, 0 bizitegi-eremuko AI01 jarduketa integratuari buruzko zehaztapenen deuseztasuna, eta ezin izango da zehaztapenak zehaztu demandak subsidiarioki nahi duen moduan, interesa dagoenean 0 bizitegi-eremuko AI01 eremu integratuak lurzorua antzeko edo AI02 eremu mugakidearen pareko ondare-edukia izateko eskubidea aitor dadin, eta, subsidiarioki, 0 bizitegi-eremuan sartutako gainerakoekiko. Beraz, epaian bertan ukatu egin da alegazio-egilearen argudio nagusia, hau da, planifikatzailearentzako erreferentzia AI-02 izan behar duela. Alegazio-egileak berak 487,53 €/ m<sup>2</sup>-ko hasierako balioa ematen dio AI-01i, aldaketa-proposamenaren arabera, eta hori, funtsean, jarduketa integratuen batez bestekora hurbiltzen da.*

Antolamendua ingurunera egokitu da fisikoki eta morfologikoki (hortik ateratzen den garaje-azalera), eta, ahal den neurrian, aurreikusitako higiezin-produktuak dibertsifikatu dira (BSE, BET eta EL), merkaturatzearen egingarritasuna errazteko. Azken aukera hori aldatu egin daiteke jarduera sustatzen duen operadorearen, izaera publiko edo pribatuaren edo tamainaren arabera.

Adierazitakoagatik, alegazioa ez onartzea proposatzen da.

|               |            |                               |
|---------------|------------|-------------------------------|
| IAU-2024-0291 | 2024/07/16 | BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA |
|---------------|------------|-------------------------------|

## IDATZIAREN EDUKIA:

Adierazten du 2019-11-13an HAPOn berrikuspenari buruzko txostena eman zuela, AI-01ean aurreikusitako 80 etxebizitzak barne hartuta. Kopuru hori beste 14 etxebizitzatan handitzeari dagokionez, 39 biztanle gehiago hartuz (2,78/etxeb.), kontsumoa 0,14 l/s-koa izatea aurreikusten du, eta eskariari erantzuteko eta hondakin-urak garraiatzeko eta tratatzeko azpiegitura nahikoa duela adierazten du.

Horrez gain, beste gogoeta batzuk ere egin ditu lehen mailako sarearen eta bigarren mailako sarearen irismenari buruz, eta erakundearen eta Udalaren eskumenei buruz, bakoitzari dagokionez.

## ERANTZUNA:

Inolako eragozpenik ez adierazitakoari.

|     |            |      |
|-----|------------|------|
| S/R | 2024/08/27 | ADIF |
|-----|------------|------|

**IDATZIAREN EDUKIA:**

Honako alegazio hauek egin ditu:

- Dokumentazio grafikoan, jabari publikoko eta babeseko eremuez gain, eraikuntzarako muga-lerroa ere sartzea, 01-700 lerroan.
- Horri dagokionez, Basurtu Ospitalea-Ariz linea bereiztea, Interes Orokorreko Trenbide Sarekoa ez dena.
- Kareaga Goikoa aldean eremuaren mugaketa berregokitzeko aukera kontuan hartzea, ADIFen titulartasuneko lurzorua desafektatuak izateko moduan baitaude.
- Aldaketaren edukia Garraio Ministerioko Trenbide Plangintzako Zuzendariordetza Nagusira bidali behar da, dagokion sektore-txostena egin dezan.

**ERANTZUNA:**

- Ez da beharrezkotzat jotzen 01-700-Bilando Indalecio Prieto-Casetas linearen eraikuntzarako muga-lerroa grafiatzea, Kareaga Goikoaren zatian ez baita eraikinik aurreikusten, eta, gainera, gai hori ez baita aipatu Trenbide Plangintzaren txostenean.
- Estatuko araudi sektorialaren aplikazio-eremutik kanpo uztea Basurtuko Ospitalea-Ariz linea, titulartasun autonomikoa duena, hasiera batean espediente honetatik kanpo dagoen gaia da.
- Ez da bidezkotzat jotzen eremuaren mugaketa Kareaga Goikoaren zatian berregokitzea, lursailak ez baitira egokiak eraikuntzarako edo erabilera funtzionalerako zuzkidura publiko gisa.
- Trenbide Plangintzako zuzendariordeak txostena egin du espediente honetan (erref.: 240903P719, 2024-09-05koa).

Adierazitakoagatik, era honetan erantzutea proposatzen da.

|            |            |                                       |
|------------|------------|---------------------------------------|
| 240903P719 | 2024/09/05 | TRENBIDE SEKTOREAREN ZUZENDARITZA NAG |
|------------|------------|---------------------------------------|

**IDATZIAREN EDUKIA:**

Txosten sektoriala egin du, eta adierazi du Trenbide Plangintzako Zuzendariordetza Nagusiak, trenbide-plangintzaren ikuspegitik, ez duela kontuan hartu beharreko epe labur/ertainerako jarduketarik aurreikusi, eta, beraz, ez dela oharrik egin.

Basauriko Udalak 2024-06-19an eskatuta 2024-010-27an emandako txostena aipatu du, eta honako gogoeta hauek egin ditu:

- Dokumentazio grafikoari 01-700-Bilbao Abando Indalecio Prieto-Casetas linearen babes-eremuak grafiatzen dituen plano bat gehitzea.
- Estatuko araudi sektorialaren aplikazio-eremutik kanpo uztea Basurtu Ospitalea-Ariz linea, titulartasun autonomikoa duena eta Interes Orokorreko Trenbide Sarekoa ez dena.
- Kareaga Goikoa aldean eremuaren mugaketa berregokitzeko aukera kontuan hartzea, ADIFen titulartasuneko lurzorua desafektatuak izateko moduan baitaude.

**ERANTZUNA:**

Ez dago ezer gehitzekorik lehen puntuari dagokionez.

2024-010-27ko aipaturako txostenari dagokionez, adierazi behar da akats bat izan behar dela, ezinezkoa baita data hori, espediente honetan baloratzen den txostena egiteko postdatatuta baitago. Aipaturako oharrei dagokienez:

- Dokumentazio grafikoari 01-700-Bilbao Abando Indalecio Prieto-Casetas linearen babes-eremuak grafiatzen dituen plano bat gehituko zaio.
- Estatuko araudi sektorialaren aplikazio-eremutik kanpo uztea Basurtuko Ospitalea-Ariz linea, titulartasun autonomikoa duena, hasiera batean espediente honetatik kanpo dagoen gaia da.
- Ez da bidezkotzat jotzen eremuaren mugaketa Kareaga Goikoaren zatian berregokitzea, lursailak ez baitira egokiak eraikuntzarako edo erabilera funtzionalerako zuzkidura publiko gisa.

Adierazitakoagatik, era honetan erantzutea proposatzen da.

|               |            |                              |
|---------------|------------|------------------------------|
| IAU-2024-0291 | 2024/10/02 | EUSKAL URAREN AGENTZIA - URA |
|---------------|------------|------------------------------|

**IDATZIAREN EDUKIA:**

Udalak egindako txosten-eskaera jaso izanaren adierazpena egin du, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari (CHC) helarazi diola jakinarazi du, bi erakundeen txosten sektorialak egingo direla adieraziz.

**ERANTZUNA:**

Horri buruz ez dago ezer esatekorik, txostenak egiteko epeei eta haien izaerari buruzko hirigintza- eta sektore-araudian ezarritakoari kalterik egin gabe.

Adierazitakoagatik, era honetan erantzutea proposatzen da.

Jendaurreko erakustaldian egindako alegazioak ikusita, udalak behin-behineko onespena eman (2024ko abenduaren 26ko osoko bilkurako akordioa) eta dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zuen. Honek aldeko txostena egin zion dokumentuari 2025eko otsailaren 26ko saioan, ondoko salbuespenekin (letra etzanez, EAELABk egindako zehaztapenak; letra arruntez, dokumentu honetan nola hartu diren kontuan):

*Lurralde antolamenduari dagokionez:*

- *Epai judizialaren bidez antolamendua baliogabetuta izanda, AI-01 eremutik kanpo gelditu den lurzoruaren parametroak definitu beharko dira, eta hori txosten honen xede den espedientearen planoen erabilerarekin bat etorritik egingo da.* Zehaztasun hori Azbarren kalearen eta Uribarri BHIren arteko lur-zatiari dagokio. Antolamendu-planoetan dagoeneko ekipamendu gisa jasotzen da, lehendik zegoen sistema lokalaren ekipamendurekin parekatuta, sistema horretan integratuta geratzen baita, eraikigarritasun-esleipenik gabe.
- *Kareaga Goikoa eremuan, EAEko trenbidesareko LPSaren zortasun- eta afekzioeremuen mugako lineak grafiatu beharko dira.* Lerro horiek, jatorrizko HAPOn jasota zeudenak, ez ziren hasierako onarpeneko dokumentuan agertzen, ustekabean itzalita geratu baitziren pdf fitxategi inprimagarria sortzean. Aldiz, behin-behineko onarpeneko dokumentuan agertzen ziren, eta dokumentu honetan behin betiko txertatu dira.
- *Bizkotxalde aldean, ETSren txostenaren arabera, bai oinplanoan, bai sekzioan, eremu horretan planteatutako eraikin berria eta metroaren trazadura irudikatu behar dira; izan ere, beharrezkoa da babes-erregimenaren mugaketak eta trenbidearen ondoko zonetako erabilera- eta eraikuntza-baldintzak mugatzea.* Sekzio bat gehitu zaio Bizkotxalderi dagokion antolamenduaren banakako fitxari. Bertan, metroaren galeriaren posizioa irudikatzen da, ia 3 garaiera azpitik doana, eraikinaren sestra baxuenetik tunelaren gangaren goiko alderaino neurtuta.

*Uraen arloan:*

- *Hornidurari eta saneamenduari dagokienez, BBUPk zerbitzuak bermatzeko hornidura- eta saneamendu-azpiegiturari buruz igorritako nahikotasun txostena sartuko da espedientearen dokumentazioan.* Espedientean 2024-07-16ko aldeko txosten hori dago jasota, eta honako irudi hauek hartu dira:

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>2. Hornidura</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- “Zadorra sistemaren” bidez hornitzen da Basauri, eta sistema gai da kontsumoaren hazkunde hori bere gain hartzeko. Horrenbestez, ondoriozta daiteke, hornidura-baldintza normaletan, BBUP azpiegitura eta baliabide nahikoa izango lituzkeela “AI-01 jarduketa integratuareb Hiri Antolamenduko Plan Orokorren lehenengo aldaketa puntuala” proposamena ondoriozko eskaeraren hazkundeari aurre egiteko.</li></ul> | <b>3.Saneamendua</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Basauriko “AI-01 jarduketa integratuareb Hiri Antolamenduko Plan Orokorren lehenengo aldaketa puntuala” sortutako emariak Galindoko HUAk biltzen ditu. Horregatik, BBUpeko azpiegiturek hondakin-uren karga berriak garraiatzeko eta tratatzeko gaitasun nahikoa dutela uste da.</li></ul> |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|



*Trenbideari dagokionez:*

- *Dokumentazio grafikoari 01-700-Bilbao Abando Indalecio Prieto-Casetas lineako babes-eremuak grafiatzen dituen plano bat gehitzea.* Gorago adierazi denez, lerro horiek, jatorrizko HAPOn jasota zeudenak, ez ziren hasierako onarpeneko dokumentuan agertzen, ustekabeen itzalita geratu baitziren pdf fitxategi inprimagarria sortzean. Aldiz, behin-behineko onarpeneko dokumentuan agertzen ziren, eta dokumentu honetan behin betiko txertatu dira.
- *Estatuko araudi sektorialaren aplikazioeremutik kanpo uztea Basurtu Ospitalea-Ariz linea, titulartasun autonomikoa duena eta Interes Orokorreko Trenbide Sarekoa ez dena.* Gai hau espediente honen irismenetik harago doa; izan ere, ikuspegi juridiko hutsetik, araudi bat edo bestea aplikatzea *ex lege* egiten da, eta horri buruz ez dauka zertan esan eta ez du ezer esan behar hirigintza-tresna batek.
- *Kareaga Goikoa zatian eremuaren mugaketa berregokitzeko aukera kontuan hartzea, ADIFen titulartasuneko lurzorua desafektatuak izateko moduan daudela ikusita.* Udalak kontuan hartu beharreko (ala ez) ikuspegi diskrezionala da gai hau, eta ADIFek hasierako onespeneraren fasean egindako alegazioari emandako erantzunean ebatzi zen. Alegazio horri erantzunez esan zen ez dela bidezkotzat jotzen eremuaren mugaketa Kareaga Goikoaren zatian egokitzea, lursailak ez baitira egokiak eraikuntzarako edo erabilera funtzionalerako zuzkidura publiko gisa.

Bidezko aldaketak egin ondoren goian adierazitako eran, behin betiko onespenera ematen zaio aldaketari. BAO-n argitaratu ondoren, indarrean sartuko da.

Aldaketak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura izan du. Hasi zen, ingurumen-dokumentu estrategikoa igorri zitzaionean ingurumen-organoari, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikuluan ezarritako edukiarekin. 2024-05-10ean, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak ebazpena eman zuen, Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren A.I.-01 eremuaren 1. aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa egiteko. Horren neurriak dokumentu honetan txertatu dira.

## **5.- Erabilitako oinarriak.**

Kartografia: udal zerbitzu teknikoek emandako 1/500 eskalako oinarri kartografikoa eta Basauriko HAPOn jatorrizko oinarri kartografikoa erabili da plano kartografiko digital gisa.

Nolanahi ere, sistema geodesiko ofizial gisa ETRS89 hartzen da. Erabilitako oinarriak ortoargazki digitaletan eta landa-lanarekin kontrastatu dira.

## 1. HIRIGINTZA-PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

### 1.- Lurralde-plangintza, plangintza sektorial eta beste afekzio batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko Legea onartu zenean, lurraldea antolatzeko tresna berriak sortu ziren Euskadin: Gidalerroak, Lurralde Plan Sektorialak eta Lurralde Plan Partzialak (aldaketa hau, neurri batean eta HAPOn arabera, egokitu egin beharko zaie). Horiei esker, lehen aldiz, lurraldea antolatzeko sistema oso bat jarri ahal izan da abian.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ondoren, lurralde-erreferentziazko esparru bat dago politika sektorialak bideratzeko eta udal-plangintzak koordinatzeko.

Lurralde-plangintza partzialari dagokionez, Basauriko udalerria Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalean sartuta dago, eta haren Lurralde Plan Partzialaren dokumentua behin betiko onartuta dago irailaren 26ko 179/2006 Dekretuaren bidez. Une honetan bere berrikuspena ari da tramitatzen (behin-behineko onarpen fasean).

Lurralde-plangintza sektorialari dagokionez, Basauriri, printzipioz, lurralde-plangintzako tresna hauek eragiten diote:

*EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana*

*EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana*

*Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana*

*EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana*

*Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (printzipioz, ez da aplikagarria hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian)*

*Bizkaiko Errepideen Plana (Udalari lagatako zatiak izan ezik; berrikuspen prozedura barruan dago)*

Hauek dira idazten edo izapidetzen ari diren dokumentuak:

*Etxebizitza Sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana*

*Kultura Ondarearen Lurraldearen Arloko Plana*

*Garraio Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana*

*Energia Berristagarrien Lurraldearen Arloko Plana*

EAEn onartutako lurralde-plangintzako beste figura batzuk, Planaren xede den eremuan eragina izan dezaketenak, honako hauek dira:

*Uholdeak Prebenitzeko EAEko Plan Integrala (PIPI)*

*Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2005-2016 (berrikusi gabe)*

*Euskadiko Lurzoru Kutsatuen Plana (2007-2012; berrikusi gabea)*

*Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana (2008-2012; berrikusi gabea)*

*Bizkaiko Ziklo Plana (berrikusten ari dira)*

Aipatzekoak dira, besteak beste, honako hauek:

*Bilboko Aireportutik eratorritako zortasunak.*

*Trenbide arloko zortasunak*

*Espetxeen zortasunak.*

## 2.- Indarrean dagoen hirigintza-plangintza.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2020ko abenduaren 29ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen behin betiko. Araudia 2021eko urtarrilaren 26ko BAOean argitaratu zen, 16. zenbakian, eta horrela sartu zen indarrean. Plan Orokor honek berrikusi eta ordeztu egiten du uztailaren 27ko 466/1998 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsitakoa (urtarrilaren 31ko 19/2000 Foru Aginduaren bidez bete beharrekoa), bi hamarkada baino gehiago iraun zuena.

Plan Orokor berria indarrean jarri berri denez, aldaketaren eremuari dagozkion zehaztapenak aztertu eta egiaztatu behar dira.

## 3.- Aldaketak hartzen duen eremuaren mugaketa.

Aldaketak AI-01 Jarduketa Integratuari eragiten dio. Hiri-lurzoru finkatu gabeko eremu etena da, zati batean Kareaga Goikoa, 2.020,06 m<sup>2</sup>-koa, eta bestean Bizkotxalde, 6.234,41 m<sup>2</sup>-koa.

Kareaga Goikoako zatia udalerrira sartzeko guneez arrabal bat da, XX. mende hasierako etxebizitza kolektiboen tipologia duena. Iparraldean trenbidearekin egiten du muga, hegoaldean Kareaga Goikoa kalearekin, mendebaldean espazio libreekin eta ekialdean 9. zenbakiko eraikinarekin, AI-02 jarduketa integratuaren zati dena. Eraikinak kokatuta dauden plataforma eta trenbideraino maldan beheara doan espazio libre bat ditu. Bertan sartzen dira 1. zenbakiko eraikinak, egoera txarrean daudenak baina jendea bizi direnak, 3. zenbakiko eraikinak, aurri-egoeran eta jenderik gabe daudenak, 5. zenbakiko eraikinak, ia aurri-egoeran daudenak, baina zati batean eta 7. zenbakiko eraikinak, egoera txarrean daudenak eta bertan bizi direnak, guztira 39 etxebizitza. Bere urbanizazio-mailak Kareaga Goikoa kaletik jasotzen dituen oinarritzko hiri-zerbitzuak hartzen ditu, lehendik dauden eraikinetarako dimentsionatuak.

Bizkotxaldeko zatia Azbarren auzoaren ondoko urbanizazio berriagoko eremu bati dagokio. Mugakideak: iparraldean, Matxitxako kalea; hegoaldean, Uribarri kalea; mendebaldean, Bizkotxalde egoitza; eta ekialdean, Uribarri BHI. Gaur egun eraikuntzarik gabeko lursaila da, eta 12 metro inguruko altuera du Uribarri kalearen eta haren kotarik baxuenaren artean. Bere urbanizazio-mailak, hasiera batean, HAPOn aurreikusitako antolamenduari, loturei dagokienez, euskarria emateko gai dela dirudi.



Kareaga Goikoa 1, 3, 5, 7 (Ortofotografia 2021)



Bizkotxalde (Ortofotografia 2021)

#### 4.- HAPOn gaur egungo parametroak.

AI-01 jarduketa integratua, beste batzuekin batera, 0 bizitegi-eremuan kokatzen da.

Kareaga Goikoako zatia oinezkoentzako bideen espazio libreetarako gordetzen da, eta lehendik dauden eraikinak antolamendutik kanpo uzten dira (1., 3., 5. eta 7. zenbakiak). Bizkotxaldeko zatia oinezkoentzako bideetarako, ekipamenduetarako, espazio libreetarako eta bizitegiatarako (80 etxebizitza tasatu) gordetzen da, eta ez dago antolamenduz kanpoko eraikin edo instalaziorik..



Bere parametro nagusiak ondoko hauek dira:

| Eremua  | Eremuaren azalera  |                    |      | Azalera eraikia |                |               | Solairuen kopurua | Eraikigarritasuna SG m <sup>2</sup> /m <sup>2</sup> |
|---------|--------------------|--------------------|------|-----------------|----------------|---------------|-------------------|-----------------------------------------------------|
|         | Eremua SOak barne. | Eremua SOrik gabe. | SOak | Guztira         | Sestra gainean | Sestra azpian |                   |                                                     |
| A.I. 01 | 8.254,47           | 8.254,47           | 0,00 | 10.057,88       | 8.702,67       | 1.355,21      | S+PB+8            | 1,05                                                |

| Eremua  | Ataripea | Merkataritza-lokala | Etx. Librea | Etx. Gizarte-babeseko | Etxebizitza tasatua | Etxebizitzen guztizkoa | Garaje-trastelekua, etx. librea, beheko solairua | Garaje-trastelekua, etx. librea, sotoa | Garaje-trastelekua, gizarte-bab. etx., sotoa | Garaje-trastelekua, etx. tasatua, sotoa |
|---------|----------|---------------------|-------------|-----------------------|---------------------|------------------------|--------------------------------------------------|----------------------------------------|----------------------------------------------|-----------------------------------------|
| A.I. 01 | ---      | ---                 | ---         | ---                   | 7.347,46            | 7.347,46               | 1.355,21                                         | ---                                    | ---                                          | 1.355,21                                |

| Eremua  | Dagoen etxebizitzaren azalera | Bizitegi-gehituntza | Etx. guztizkoa | Etx. libreen kop. | Gizarte-bab. etx. kop. | Etx. tasatuen kopurua | Modulua | Dauden etxebizitzaren kop. | Etxebizitza-gehituntza |
|---------|-------------------------------|---------------------|----------------|-------------------|------------------------|-----------------------|---------|----------------------------|------------------------|
| A.I. 01 | 2.629,65                      | 4.717,81            | 80             | ---               | ---                    | 80                    | 91,84   | 39                         | 41                     |

|         |                     | Haztapen-koefizienteak |          |                              |                     |                    |                    |                               |          |               |              |              |              |
|---------|---------------------|------------------------|----------|------------------------------|---------------------|--------------------|--------------------|-------------------------------|----------|---------------|--------------|--------------|--------------|
| Eremua  | Berezko erabilera   | Merkataritza-lokala    | Ataripea | Gizarte-babeseko etxebizitza | Etxebizitza tasatua | Etxebizitza librea | Industria-pabiloia | Hirugarren sektoreko pabiloia | Blitegia | Garajea GBEan | Garajea ETan | Garajea ELan | Garajea BSan |
| A.I. 01 | Etxebizitza tasatua | 0.7903                 | -0.5187  | 0.2273                       | 1.0000              | 1.4839             | 0.2305             | 0.5763                        | 0.0576   | 0.0045        | 0.0201       | 0.0864       | 0.3458       |

| Eremua  | Eskatutako estandarra |        | Proposatutako estandarra |          | GBE gairdikina/defizita: |         | ET gairdikina/defizita: |
|---------|-----------------------|--------|--------------------------|----------|--------------------------|---------|-------------------------|
|         | GBE                   | ET     | GBE                      | ET       | A.I. 02                  | A.I. 07 | A.I. 01                 |
| A.I. 01 | 943,56                | 943,56 | ---                      | 7.347,46 | - 943,56                 |         | + 6.403,90              |

## 2. PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA.

### 1.- Proposatutako antolaketa.

Aldaketa honetan proposatzen den antolamendu berriak 80 etxebizitzaren hasierako aurreikuspena beste 14 etxebizitzaren zabaltzen du, eta horrek 94 etxebizitza ematen ditu guztira, hau da, 55 etxebizitza gehiago. Aurreikuspen hori jarduketari bideragarritasun ekonomiko handiagoa emateko egin da. Bizkotxaldeko eremua berrantolatzea aurreikusten da, lurzatian eraikuntza ezartzea berrantolatuz eta sestrapeko azaleraren aprobetxamendu handiagoa ahalbidetuz. Hori guztia, erabilera publikoko espazioen murrizketarik gabe. Hurrengo tauletan ikus daitezke jatorrizko parametroen eta aldatutako arteko aldeak.

|                                           |           |    |    |                            |    |                                |  |
|-------------------------------------------|-----------|----|----|----------------------------|----|--------------------------------|--|
| <b>JATORRIZKOA</b>                        |           |    |    |                            |    |                                |  |
| Lurzorua azalera m <sup>2</sup>           | 8.254,47  |    |    |                            |    |                                |  |
| Eraikigarritasuna m <sup>2</sup> s        |           |    |    | <b>ETxebizitza Kopurua</b> |    |                                |  |
| guztira SG                                | 8.702,67  |    |    | Guztira                    |    | Aldez aurretik (AI) Hazkundera |  |
| Bizitegia BET                             | 7.347,46  | +8 | 80 | 39                         | 41 |                                |  |
| Garaje/trasteleku librea                  | 1.355,21  | PB |    |                            |    |                                |  |
| Guztira SG                                | 1.355,21  |    |    |                            |    |                                |  |
| Garaje/trastelekua BET                    | 1.355,21  | S  |    |                            |    |                                |  |
|                                           | 10.057,88 |    |    |                            |    |                                |  |
| <b>Zuzkidurak m<sup>2</sup> zoru</b>      |           |    |    |                            |    |                                |  |
| Oinezkoentzako bideak                     | 862,13    |    |    |                            |    |                                |  |
| Gune libreak                              | 4.038,17  |    |    |                            |    |                                |  |
| Ekipamenduak                              | 1.998,92  |    |    |                            |    |                                |  |
| <b>Pribatizagarria m<sup>2</sup> zoru</b> |           |    |    |                            |    |                                |  |
| Bizitegia BET                             | 918,43    |    |    |                            |    |                                |  |
| Garajea BS                                | 436,78    |    |    |                            |    |                                |  |

|                                           |           |         |    |                            |    |                                |  |                       |
|-------------------------------------------|-----------|---------|----|----------------------------|----|--------------------------------|--|-----------------------|
| <b>ALDATUA</b>                            |           |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Lurzorua azalera m <sup>2</sup>           | 6.050,70  |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Eraikigarritasuna m <sup>2</sup> s        |           |         |    | <b>ETxebizitza Kopurua</b> |    |                                |  |                       |
| guztira SG                                | 10.283,00 |         |    | Guztira                    |    | Aldez aurretik (AI) Hazkundera |  | m <sup>2</sup> /eraik |
| Bizitegia LIBREA                          | 4.982,16  | B+6/B+7 | 46 | 94                         | 39 | 7                              |  | 108,31                |
| Bizitegia BET                             | 3.208,26  | B+6/B+8 | 29 |                            |    | 29                             |  | 110,63                |
| Bizitegia BES                             | 2.092,58  | B+6/B+7 | 19 |                            |    | 19                             |  | 110,14                |
| Guztira SG                                | 5.704,00  |         |    | <b>APARKALEKU KOPURUA</b>  |    | <b>TRASTELEKU KOPURUA</b>      |  |                       |
| Garaje/trasteleku librea                  | 2.230,00  | S-1     | 69 | 141                        | 53 | 85                             |  |                       |
| Garaje/trastelekua BET                    | 2.632,00  | S-2     | 44 |                            |    |                                |  |                       |
| Garaje/trastelekua BES                    | 842,00    | S-3     | 29 |                            | 32 |                                |  |                       |
|                                           | 15.987,00 |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| <b>Zuzkidurak m<sup>2</sup> zoru</b>      |           |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Oinezkoentzako bideak                     | 797,00    |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Gune libreak                              | 2.692,70  |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Ekipamenduak                              | 0,00      |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| <b>Pribatizagarria m<sup>2</sup> zoru</b> |           |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Bizitegia EL-BET-BES                      | 1.582,00  |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| Gune libre pribatuak                      | 979,00    |         |    |                            |    |                                |  |                       |
| guztira                                   | 6.050,70  |         |    |                            |    |                                |  |                       |

### 2.- Etxebizitza kopuruaren handitzearen justifikazioa.

AI-01 planak, orain HAPO agintzen den bezala, guztira 80 etxebizitza tasatu eraikitzeko aukera aurreikusten du, Bizkotxalden.

Aldaketa honetan proposatzen den antolamendu berriak beste 14 etxebizitzaren zabaltzen du aurreikuspen hori, eta horrek 94 etxebizitza ematen ditu guztira (46 EL, 19 BES eta 29 BET). Eremu horretan bertan berrantolaketa bat egitea ere aurreikusten da, lurzatian eraikinaren ezarpena berrantolatuz eta sestra azpiko azaleraren aprobetxamendu handiagoa ahalbidetuz. Hori guztia, igarotze publikoko espazioen murrizketarik gabe.

Jarduketaren mugaketa ere doitzen da, bai Kareaga Goikoako zatian, trenbidearen eremuaren ondoan, non tunelaren ahoa kentzen da (161,41 m<sup>2</sup>) trenbide azpiegituran

sartzeko, bai Bizkotxaldeko ekialdean, non 2.034,36 m<sup>2</sup> kentzen diren hezkuntza zentroari gehitzeko. Horrek jarduketaren azalera jatorrizko 8.254,47 m<sup>2</sup>-tik 6.050,70 m<sup>2</sup>-ra murrizten du.

Proposatutako etxebizitzaren gehikuntza txikia da lurralde-plangintzak finkatutako gehieneko bizitegi-eskaintzaren ikuspegitik.

### 3.- Zuzkidura estandarren betetzearen justifikazioa.

Legez aurreikusitako zuzkidura-estandarrek (2/2006 Legea eta Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretua) sestra gainera bizitegi-erakigarritasunaren hazkundearen gainera kalkulatu behar dira. Lehendik zegoen bizitegi-erakigarritasuna, HAPOaren zenbaketaren arabera, 2.692,65 m<sup>2</sup>-koa da; beraz, erakigarritasun-gehikuntza 4.654,81 m<sup>2</sup>-koa da jatorrizko antolamenduan, eta 7.590,35 m<sup>2</sup>-koa proposatutako aldaketan.

Kalkulu horretatik honako hau ateratzen da:

|                                             | Estandarra | Gaur egun    | Aldatuta      | Diferentzia    | Proposamena                       |
|---------------------------------------------|------------|--------------|---------------|----------------|-----------------------------------|
| GLSO m <sup>2</sup> z                       | 930,96     | Justifikatua | 1.518,07      | -587,11        | Aldez aurreko HAPOren soberakina  |
| Zuzk Bizit m <sup>2</sup> z                 | 69,82      | Justifikatua | 113,86        | -44,03         | Diru bilakatu D 123/2012 5.3 art. |
